

3. Onuradunak.

Beka hau, kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek lor dezakete.

Horrez gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du dirulaguntza eskatzeko datan 16 urteko adina betea izatea.

Onuradunek Azpeitiko Udalak dirulaguntzak emateko eratu-tako ordenantza arautzailearen 10. artikuluan eskatutako baldintzak bete beharko dituzte (2022ko urtarrilaren 26ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 16. zk.).

Baztertzeak:

Balioespen batzordeak eskumena izango du, kasuz kasu, dirulaguntza eskaera bat deialditik kanpo uztako, betiere honako irizpideak kontuan izanik eta behar bezala arrazoitu ondoren.

Baztertuak izango dira, espreski:

1. Ibilbide luzeko artistak.

Balioespen batzordeak egin litzakeen beste interpretazioaren kalterik gabe, Ibilbide luzetzat ulertuko da, eskaerarekin batera aurkezturiko C.V.-aren baitan eta arlo jakin batean 5 urte baino gehiagoko eskarmentua badu.

2. Kultur arloren batetik 28.000,00 euro gordin urteko baino handiagoko diru sarrera muga gainditzen duten artistak.

3. Elkarateak.

4. Aurreko deialdien baitan, «Sorkuntza» bekaren onuradun izandakoak, beti ere, bekaz laguntzeko aurkezten duen proiektua diziplina berdinekoa bada.

5. Era zuzenean edo zeharka indarkeria bultzatzen duten edota indarkeri motaren bati apologia egiten dioten proiektuak.

Era berean, modu orokorrean deialdi honen bidez lagunduko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak:

— Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzetako Lege Orokorren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.

— Bere izaera eta helburuengatik beste udal arlo edo erakunde autonomoren baten programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, horrelakoetan, dagokion erakunde edo udal arlora bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.